

GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



Zer dira migrazioak?

- A. Pertsonak beren jatorrizko lekutik beste helmuga batera joatea.
- B. Beste herrialde batean turismoa egitera joaten diren pertsona-taldeak.
- C. Migrazioak fenomeno atmosferiko aldakorrek dira.

Azalpena: migrazioak dira pertsona batzuek sorlekutik beste norabait joateko egiten dituzten bidaiak. Migrazioen ondorioz, ohiko bizilekua aldatzen dute pertsona horiek. Batzuk lanaren edo aukera ekonomiko berrien bila joaten dira, beste batzuk, aldiz, familiarekin elkartzera edo ikastera. Badira, horrez gain, gerraren, gatazka armatuaren, hondamendi naturalen eta beste ingurumen-faktore batzuen ondorioz ihes egiten dutenak.

Giza mugikortasun behartua

Noiz hasi ziren migrazioak?

- A. Historia osoan zehar egon dira migrazioak.
- B. Azken urteetan.
- C. Giza gatazka handienekin, Mundu Gerretan.

Azalpena: gizadiaren historian zehar, jendea etengabe mugitu da leku batetik bestera, finkatzeko eta bizitza duina eraman ahal izateko toki bat aurkitu nahian. Emigratzaileen ondorengoak gara guztiok.

Giza mugikortasun behartua

Gauza bera al da migratzailea eta errefuxiatua izatea?

- A. Bai, gauza bera da. Migratzaile guztiak errefuxiatuak dira.
- B. Ez. Errefuxiatuek segurtasun-arrazoiengatik ihes egiten dute beren herrialdetatik: gatazka armatuak, indarkeria edo jazarpena.
- C. Ez, migratzaileak nahi dutelako aldatzen dira herrialdez beti.

Azalpena: migrazio ekonomikoetan, jendea lan-aukeren bila ateratzen da bere herrialdetik, bizi baldintza hobek bilatuz. Errefuxiatuek, aldiz, beren bizitza arriskuan dagoelako egiten dute ihes beren herrialdetatik. Jazarpena sufritzeko arrazoiak askotarikoak dira: esaterako, arraza, erlijio, nazionalitate edo talde sozial jakin bateko kide izatea edo iritzi politiko jakin bat izatea. Batzuetan, ez dago oso argi migratzaileen eta errefuxiatuen arteko aldea zein den, bi kasuetan bizirik jarraitu ahal izateko egiten dutelako ihes.

Giza mugikortasun behartua

Munduan zenbat jendeak utzi behar izaten du bere herrialdea ezinbestean? 2018

- A. 100.000 lagun
- B. 89,3 milioi lagun
- C. 20 milioi lagun

Azalpena: Gerratik, jazarpenetik eta gatazketatik ihes egiten duten pertsonen kopurua 89 milioiak gainditu zituen 2022an ACNURen datuen arabera (Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia).

Giza mugikortasun behartua

Bere herrialdean arriskuan dagoen norbait, beste herrialde batean eskatu dezake asiloa?

- A. Inor ez du bere herrialdean arriskurik pasatzen.
- B. Ez. Bere herrialdean geratu behar da.
- C. Bai, giza eskubide bat da eta herrialdeak babesa eman behar dio.

Azalpena: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak 14. artikuluan ezartzen duenaren arabera, "jazarpenik jasanez gero", pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea.

Giza mugikortasun behartua

Zer desberdintasun dago migrazio behartuaren eta lekualdaketa behartuaren artean?

- A. Ez dago desberdintasunik.
- B. Lekualdaketa esaten zaio norbait herrialdetik atera denean, eta migrazio, aldiz, bere herrialdearen barruan geratu denean.
- C. Lekualdaketa behartuak nazio baten mugen barruan gertatzen dira; migrazio behartua, aldiz, nazioarte-mailan gertatzen da, mugak zeharkatu direnean.

Azalpena: barne-migrazio behartuak nazio baten muga-barruan gertatzen den lekualdaketa egiten dio erreferentzia; nazioarteko migrazio behartuak, aldiz, nazioarteko mugak zeharkatu dituzten mugimenduak hartzen ditu barnean.

Giza mugikortasun behartua

Zer esan nahi dute ingelesezko IOM siglek?

- A. Emakume Migratzaileen Barne Erakundea.
- B. Nazio Batuen Nazioarteko Migrazio Erakundea.
- C. Migratzaileak Barne Hartzeko Erakundea.

Azalpena: gobernu arteko erakunde bat da, munduko migrazioen arazoak arduratzen dena. Besteak beste, zeregin hauek betetzen ditu: migrazio-arazoei konponbide praktikoak bilatzen laguntzea eta behar duten migratzaileei laguntza humanitarioa eskaintzea, errefuxiatuak, lekualdatuak nahiz deserrotuak izan.

(<https://www.iom.int/es/proposito-de-la-iom>)

Giza mugikortasun behartua

GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



Ingurumenarekin lotutako arrazoi askorengatik ihes egin behar izaten du jendeak bere etxetik beste leku batzuetara.

Aipatu gutxienez hiru.

Azalpena: era askotako ingurumen-faktoreek sortzen dituzte migrazioak, eta klima-aldaketarekin lotuta daude. Izan ere, klima-aldaketak muturreko fenomeno meteorologikoak sortzen ditu: lurrikarak, urakanak, uholdeak, euri-jasak, lehortekak, eta abar.

Ingurumenarekin lotutako arazoak

Zergatik migratu behar izaten du jende gehiagok: ingurumenarekin lotutako arrazoiengatik edo gerrengatik?

- A.** Gehienek ingurumenarekin lotutako arrazoiengatik migratzen dute.
- B.** Inor ez du migratzen ingurumen-arrazoiengatik.
- C.** Jende askoz gehiagok egin behar izaten du ihes gerrengatik, ingurumen-arrazoiengatik baino.

Azalpena: jende gehienak ingurumen-arrazoiengatik migratu behar du. Askotan, ohiko bizilekuan izan den hondamendi natural baten ondorioz joan behar izaten dira. Gutxi gorabehera, 2050. urterako ingurumen-fenomenoek 200 milioi pertsonari kalte egingo diela kalkulatu da.

Ingurumenarekin lotutako arazoak

Badira munduan nahikoa urik ez duten pertsonak?

- A.** Bai. Munduan 10 pertsonatik 2k ez du nahikoa urik.
- B.** Bai. Munduan 10 pertsonatik 4k ez du nahikoa urik.
- C.** Ez. Mundu guztiak du edateko ur pixka bat.

Azalpena: munduko populazioaren % 40 baino gehiago da. Ur-eskasia duen pertsonen kopurua hazten ari da, eta eragin handiagoa du herrialde txirotuenetan.

Ingurumenarekin lotutako arazoak

Zer ondorio ditu ur-eskasiak herrialde batzuetan?

- A.** Elikagai-eskasia.
- B.** Osasun-arazoak.
- C.** Biak dira zuzenak.

Azalpena: ur-eskasiak eragina du nekazaritzako ekoizpenean; izan ere, zenbat eta ur gutxiago, orduan eta pobregoa izango dira uztak, eta familiek elikagai gutxiago izango dituzte. Gainera, baldintza higienikoak eta sanitarioak okerragotzen dira, eta, horrenbestez, gaixotasun ugari sortzen.

Ingurumenarekin lotutako arazoak

Ur-eskasia dagoen herrialdeetan bide luzeak egin behar dira ur bila joateko. Nor arduratzen da normalean ur bila joateaz?

- A.** Gizonak.
- B.** Mutikoak.
- C.** Emakumeak eta neskatok.

Azalpena: Edateko urako sarbiderik ez duten etxeen % 80an, emakumeak eta neskatok arduratzen dira ura eramateaz. Denbora asko ematen dute uraren bila eta horrek denbora gutxiago uzten die heziketarako eta lanerako, eta bidean arrisku handiak hartzea suposatzen du.

Ingurumenarekin lotutako arazoak

Nori eragiten dio klima-aldaketak munduan?

- A.** Munduko biztanle guztiei, baina, batez ere, herrialde txirotuenetakoei.
- B.** Hartz zuriei.
- C.** Munduko biztanle guztiei berdin.

Azalpena: klima-aldaketaren ondoriozko hondamendi naturalek ondorio larriagoak eragiten dituzte herrialde txirotuetan. Aipatu behar da eskualde garatuak ekoizpen- eta kontsumo-moldeek eragin handiagoa dutela klima-aldaketan, baina pobrezia-egoeretan dauden herrialdeek sufritzen dituztela ondorioak gehien.

Ingurumenarekin lotutako arazoak

Zergatik da zeharo bidegabekoa ingurumen-arazoengatik lekualdatu beharra?

- A.** Ingurumen-arazoengatik gehien migratzen duten pertsonen jatorrizko herrialdeek oso-oso gutxi kutsatzen dutelako eta, hortaz, ez dutelako ia eraginik klima-aldaketan.
- B.** Haien herrialdeetako ekonomiak ezin dielako aurka egin klima-aldaketak eragindako hondamendiei.
- C.** Ez da bidegabekoa: gehien kutsatzen duten eta klima-aldaketa eragiten ari diren biztanleak aldatzen dira lekuz.

Azalpena: ingurumen-hondamendien eragin handiena jasaten duten herrialdeetatik, lehenengo hogeiek gas emisio guztien % 1 soilik igortzen dute; aldiz, klima-aldaketaren ondoriozko hondamendien % 99 Hegoalde Globaleko herrialdeetan gertatzen dira. **Lucia Carbonari, Irene Fisco – Cies Onlus 2015. Same World.**

Ingurumenarekin lotutako arazoak

Munduko biztanleen erdiei baino gehiagori ura ematen dieten bi iturriak murrizten ari dira. Zein dira?

- A.** Amazonas eta Nilo ibaiak.
- B.** Andeetako eta Himalaiako mendikateak.
- C.** Kaspiar itsasoa eta Afrikako Victoria aintzira.

Azalpena: munduan bi mendikate handi daude, a) Himalaia eta b) Andeak. Bien artean, munduko biztanleen erdiei baino gehiagori ematen diete ura.

Ingurumenarekin lotutako arazoak

Mugarik gabeko mundu bat



Zergatik da hain kezkarria Amazoniaren suntsipena?

- A. Amazonia oso oihan tropikal handia da eta ez dago arriskuan.
- B. Amazonia suntsitzen ari duten suteek oihanaren hazkundera kontrolatzen laguntzen dute.
- C. **Amazoniaren oihana galtzeak planeta osoarentzat ditu ondorio kaltegarriak.**

Azalpena: Amazonia mundu osoko oihan tropikal handiena da. Hego Amerikan dago eta bederatzi herrialdetan zehar zabaltzen da. Planeta osoko CO₂-aren erregulatzaile nagusia da. Amazoniako oihana galtzeak mundu osoko berotzean eragiten du.

Ingurumenarekin lotutako arazoak

Zer herrialdetan daude generoaren ondoriozko desberdintasunak?

- A. **Munduko herrialde guztietan.**
- B. Herrialdeen % 75ean baino gehiagoan.
- C. Herrialde garatuak % 50 baino gehiagoan, eta garapen-bidean dauden herrialde guztietan ia.

Azalpena: NBE Emakumeak egindako txostenak ziurtatzen du oraindik herrialde guztietan daudela gizona edo emakumea izatearen ondoriozko desberdinkeriak, eta desabantaila handia dela emakumeentzat.

Emakumeak

Etxeetan: nor arduratzen da zaintzaz? Hlau da, etxearekin eta familiarekin zerikusia duen guztiaz?

- A. **Nagusiki emakumeak.**
- B. Gizon eta emakumeak berdin.
- C. Batez ere, gizonak.

Azalpena: zaintza deritzogu mundu honetan ahalik eta hobetoen bizi ahal izateko egiten diren jarduerak guztiei (elikatu, sendatu, gaixoak artatu, haurtxoak zaindu, eta abar). Mundu osoan, esker gutxiko zeregin feminizatu bat da.

Emakumeak

Pertsona batzuk "muturreko pobrezian" bizi dira, egunean 1,69 € baino gutxiagorekin. Haien artean, gizon edo emakume gehiago daude muturreko pobrezian?

- A. Emakume eta gizon kopuru bera dago.
- B. **4 milioi emakume gehiago dago, gizonak baino.**
- C. Gizon gehiago daude muturreko pobrezian, emakumeak baino.

Azalpena: 2018ko NBE EMAKUMEAK txostenaren arabera, emakumeen eta neskatuen diskriminazioa mundu osoan dagoen errealitate bat da oraindik. 89 herrialdetan bildutako datuen arabera, gizonekin konparatuz gero, 4,4 milioi emakume gehiago bizi dira muturreko pobrezia mugaren azpitik.

Emakumeak

Migratzaileen eta errefuziatuen artean, zenbat dira emakumeak?

- A. Oso gutxi.
- B. **La erdia.**
- C. Gehienak gizonak dira.

Azalpena: Emakumeak gaur egun migratzaileen ia erdia dira Munduko Bankuaren arabera, eta gero eta gehiago dira.

Emakumeak

Zer arriskuri egin behar diote aurre emakumeek beste herrialde batera migratzen dutenean?

- A. Beste edozein migratzaile bezala: pobrezia-egoerei, mafiei, etab.
- B. Emakumeak erraztasun gehiago dituzte emakume izateagatik.
- C. **Ohiko arriskuez gain, emakumeak askotariko indarkeriak, bortxaketak eta sexu-abusuak sufritzen dituzte.**

Azalpena: genero-indarkeriak etapa guztietan markatzen ditu emakume eta neskatuen migrazio-prozesuak; hau da, irteeran, ibilbidean nahiz helmugan: pertsonen trafikoa, bahiketak, sexu abusuak, bortxaketak, diskriminazioa ...

Emakumeak

Zergatik migratzen dute emakumeak?

- A. Emakumeak ez dute migratzen, beren herrialdeetan geratzen dira.
- B. Herrialde berriak ezagutzeko.
- C. **Ekonomiarekin, gizartearekin eta indarkeriarekin lotutako arazoak direla eta.**

Azalpena: IOMek (Nazio Batuen Nazioarteko Migrazio Erakundea) adierazitakoaren arabera, emakumeak arrazoi ugari dituzte migratzeko: ekonomikoak, sozialak, kriminalak.

Emakumeak

Zer lan egiten dituzte, nagusiki, emakume migratzaileek?

- A. Nekazaritzakoak.
- B. Etxean geratzen dira, ez dute lanik egiten.
- C. **Neskame eta zaintzaile lanak.**

Azalpena: eskuarki, emakume migratzaileek neskame eta zaintzaile lanpostuak betetzen dituzte (garbiketa, haur eta adinekoen zaintza, eta abar). Halako lanak informalak izaten dira eta ez dituzte izaten prestazioak, hala nola gizarte-segurantza edo pentsio-sistema baterako afiliazioa, haien familien etorkizuna sustatzeko.

Emakumeak

GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



Errefuxiatuen artean, zer ehuneko dira haurrak?

- A. Gutxi batzuk.
- B. **Erdia baino gehiago.**
- C. La gehienak.

Azalpena: azken urte hauetan, drastikoki handitzen ari da bere herrialdeko mugen barruan eta mugetatik haratago lekualdatzen ari den adingabeen kopurua. Batzuk borondatez mugitzen dira; beste batzuk, aldiz, gerren, jazarpenen, pobrezia- edo hondamendi naturalen ondorioz.

Haurrak

Zein da "mena" (BDAA euskeraz) hitzaren esanahia migrazioen testu inguruan?

- A. Identifikatuta eta kontrolatuago dauden atzerritarak.
- B. Beste herrialde batzuetara migratu nahi duten pertsonak, arrisku jakin batzuegatik ezin dutenak.
- C. **Heldu baten laguntzarik gabe beste herrialde batera migratu duten haurrak eta nerabeak.**

Azalpena: BDAA: bakarrik dauden adingabe atzerritarak. Talde bereziki kaltebera da, eta gizartean gaizki ikusia. Ez zaizkie errespetatzen haurrak diren aldetik dituzten eskubide guztiak. Espainian, Marokokoak eta Aljeriakoak dira bakarrik dauden haur migratzaile gehienak.

Haurrak

Harrierako herrialdera iristean, muga gurasoekin zeharkatu duten haurrek...

- A. haur migratzaileentzako soilik den zentro batera joan behar dute.
- B. **familiarekin geratzeko eskubidea dute.**
- C. jatorriko herrialdera deportatu behar dira, familiarekin batera.

Azalpena: muga modu irregularrean zeharkatzen dutenean edo aberriaritzen dituztenean haur migratzaileak eta haien gurasoak bereizten badira, familia-unitatearen eskubideak eta haurren babes-eskubideak urratzen dira. Eskubide horiek ez dira beti betetzen.

Haurrak

Zer gertatzen da haur migratzaileen hezkuntzarekin ibilbidean zehar?

- A. Migrazio-bidaia antolatuta daude eta badira irakasle batzuk.
- B. Udan bidaiatzen dutenez, ez du eraginik haien hezkuntzan.
- C. **Urratzen den haurren eskubideetako bat da hori.**

Azalpena: migratu behar izaten duten haurrek, sarri, alde batera utzi behar izaten dute hezkuntza, gutxienez aldi baterako. Haien etorkizunari eta ikasteko eta lana aurkitzeko aukerei ere kalte egiten dio horrek.

Haurrak

Hezkuntza jasotzeko eskubide bera al dute neskek eta mutilak?

- A. Ez. Herrialde askotan neskek ez doaz eskolara, beste zeregin batzuk dituzte.
- B. Herrialde batzuetan soilik.
- C. **Bai, baina herrialde guztietan ez da betetzen eskubide hori.**

Azalpena: hezkuntza eskubide unibertsala da, baina egun ez da herrialde guztietan betetzen. Sahararik hegoalderako Afrikan, Ozeanian eta Mendebaldeko Asian, neskek eskolara joateko zailtasunak dituzte oraindik.

Haurrak

Baieztapen hauetatik zein da zuzena?

- A. **Haur asko jatorriko herrialdean geratzen dira haien zuzeneko ahaideak beste herrialde batera joaten direnean bizitzera.**
- B. Haur askok gurasoekin edo familiekin batera migratzen dute.
- C. Haur askok gurasoen edo tutoreen laguntzarik gabe migratzen dute.

Azalpena: hiru baieztapenak dira zuzenak.

Haurrak

Zer gertatzen da Espainiara bakarrik iristen diren haur migratzaileekin?

Bi erantzun zuzen daude.

- A. **Probak egiten zaizkie adingabeak diren jakiteko.**
- B. Zuzenean harrera-familia bat esleitzen zaie.
- C. **Harrera-zentroetara eramaten dituzte.**
- D. Kalean bizitzen uzten zaie.

Azalpena: lehenik eta behin, adingabeak diren egiaztatu behar da, eta, horretarako, proba mediko batzuk egiten zaizkie. Haur migratzaile bat adin txikikoa dela egiaztatzen bada eta bere ardura hartzeko ahalmena edo asmoa duten ahaideak daudela baieztatzen bada, orduan soilik, jatorriko herrialdera itzuliko dute haurra. Gehienetan, aldi baterako harrera-zentro batera eramaten dituzte. Egiaz, bakarrik iritsi diren haur adingabe asko kalean bizitzen bukatzen dute.

Haurrak

GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



Harrera-herrialdeetan, migratzaileek...

- A. neurrigabeki erabiltzen dituzte osasun-sistema eta laguntza publikoak.
- B. arriskuak sortzen dituzte.
- C. **kultura aberasten dute eta herrialdean hazkunde ekonomikoa ekar dezakete.**

Azalpena: ongi kudeatzen direnean, migrazioak harrerako herrialdeen onerako izaten dira. Migratzaileek bultzada ematen diote ekonomiari eta hazkunde ekonomikoa dakarte, eremu askotan beharrezkoa den lan-indar handiaosatzen dute, gure indize demografiko zahartua orekatzen dute, kulturaren aberasgarri ukazina dira, eta abar.

Aniztasunak dakarren aberastasuna

¿Nola esaten zaio bi kultura desberdinen edo gehiagoren arteko harremanari, bi kulturetako jendea elkarrekin bizi eta elkarrengandik ikasten dutenean?

- A. **Kulturarteko bizikidetzak.**
- B. Zu zure etxean eta ni nirean.
- C. Kulturarteko borroka.

Azalpena: kulturarteko bizikidetzak esapidearen bitartez, adierazi nahi da kultura desberdinetako kideak elkarrekin bizi, elkarrekin erlazionatu eta elkar aberasten direla.

Aniztasunak dakarren aberastasuna

Nola gainditu daiteke lurralde berean dauden kulturen arteko bereizketa?

- A. **Kulturarteko elkarriketaren bitartez.**
- B. Gizartean bizitzeko bi kulturetatik hobearen zein den erabakiz.
- C. Bizikidetzak-arau batzuk sortuz, gatazkarik egon ez dadin.

Azalpena: kulturarteko elkarriketak esan nahi du kultura desberdinetako jendeak berdintasunezko eta errespetuzko erlazioetan oinarrituta hitz egiten duela elkarrekin. Beste kultura batzuetako pertsonekin hitz eginez eta partekatuz soilik lortuko dugu elkarrekin bizitzeko bi kulturei eustea eta haien bidez aberastea.

Aniztasunak dakarren aberastasuna

Beste herrialde batzuetako zer janari normalizatu da gure egunerokoan? Aipatu gutxienez 3 adibide.

Azalpena: adibidez, pizza da gure ohituretan sartu den elikagai mota bat, gure aitona-amonak ezagutzen ez zutena. Beste adibide batzuk natxoak eta burritoak izan daitezke.

Aniztasunak dakarren aberastasuna

Zure ustez, gure kulturako festa tradizionala da Halloween jaialdia?

Azalpena: Halloween jatorri zeltikoa duen festa bat da; nagusiki Irlandan, Ingalaterran eta Eskozian ospatzen zen. Europarrek Ameriketara migratu zutenean, tradizio hori eraman zuten berekin, eta handik iritsi zaigu guri.

Aniztasunak dakarren aberastasuna

Zein da kulturartekotasunaren bereizgarri nagusia?

- A. Kultura bakoitza baliotsua da, baina ez dira nahastu behar.
- B. Kultura iritsi berriek kultura nagusira asimilatu behar dute.
- C. **Kulturartekotasunaren arabera, kulturen arteko elkarrengandik kulturarteko trukea sustatzen du.**

Azalpena: kultura guztiak dira baliotsuak eta asko dute ekartzeko. Guztiok ditugu gauza ugari ikasteko. Hain zuzen ere, gure kulturek beste kultura batzuetako elementu ugari dituzte.

Aniztasunak dakarren aberastasuna

Nola egiten diogu aurre jendearen aniztasunari?

- A. Distantzia eta errespetua gordez, haiekin gehiegi nahastu gabe.
- B. **Haiei eskubideak onartuz: gureak bezalakoak dira.**
- C. Onartuz, baina betiere guregandik desberdintzat hartuz.

Azalpena: aniztasuna errespetatzeak eta aintzat hartzeak esan nahi du gai gurea **pertsona guztiok** duintasun eta eskubide berberak ditugula onartzeko eta elkarren arteko desberdintasunak onartzeko, berdin dio zein alorretan: izaera, jokoak, pentsamoldea, sentimenduak, usteak, bizimodua nahiz bizikidetzak.

Aniztasunak dakarren aberastasuna

GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



Herritar gisa, egin al dezakegu ezer herrialde txirotuaren egoera hobetzeko?

- A. Bai, badira gure herrialdetatik egin ditzakegun zenbait ekintza.
- B. Ez. Politikarien esku dago.
- C. Bai, baina laguntzeko herrialde horietara bidaiatuz gero soilik.

Azalpena: herrialde txirotu batzuetan dauden pobrezia eta gatazka egoera batzuk gure bizimoduaren ondorio dira. Ohikoa da arropa, elikagaiak eta beste ondasun material batzuk ahalik eta gutxien ordainduta erosi nahi izatea, eta kontuan hartu gabe zer baldintzetan egin diren. Adibidez: fabrika batzuetan, jendeak oso egoera latzean eta oso soldata baxuekin lan egiten du lan.

Gure konpromisoa

Herritar garen aldetik, zer betebeharrak dugu gure herrialdera iristen diren migratzaile eta errefuxiatuei dagokienez?

- A. Dirua ematea.
- B. Pertsona horiek hartzea.
- C. Sorlekura itzultzen laguntzea.

Azalpena: beste leku batzuetatik datozen pertsona horiek atseginez eta errespetuz hartzeko aukera du gutako bakoitzak. Gainera, badira errefuxiatuei eta migratzaileei laguntzen dieten elkarte eta fundazio ugari, eta era askotara aritu gaitzake haiekin elkarlanean.

Gure konpromisoa

3 Badakizue zertan aritzen den CEAR (Errefuxiatuari Laguntzeko Espainiako Batzordea)?

- A. Migratzaile eta errefuxiatuei babesa ematen eta harrera egiten die.
- B. Gizarte-jantoki bat da.
- C. Migratzaile eta errefuxiatuen elkarte bat da.

Azalpena: errefuxiatuen eta migratzaileen alde lan egiten du, haien eskubideak aitortu eta errespetatu daitezzen. Ostatura, laguntza psikologikoa eta laneratzeko laguntza eskaintzen diete, eta haien eskubideak betetzen ez direnean salatu egiten dute.

Gure konpromisoa

Duela 8 urte baino gehiago hasitako gerra baten ondorioz, 6,5 milioi pertsona baino gehiago erregistratu dira errefuxiatu gisa beste herrialde batzuetan. Non da gerra hori?

- A. Marokon
- B. Kolonbian
- C. Sirian

Azalpena: Siriar ugari ihes egin behar izan dute azken urte hauetan; hain zuzen, 5,6 milioi baino gehiagok. Sirian, 8 urtetik beherako haur batzuek ez dute ezagutzen beste bizimodurik herrialdeko gerratik harago.

Gure konpromisoa

Adierazi gutxienez bi ideia, kanpotik datozenei harrera ona egin zaiela sentitzen laguntzeko.

Azalpena: hiztegiaren arabera, harrera da norbaitek beste norbait bere etxean edo lagunartean hartzea, ostatu, laguntza edo babesa emateko.

Gure konpromisoa

Ba al duzu herrialde ezberdinetatik etorri diren pertsonak zure inguruan: familia, lagunak, ezagunak?

Aipatu, gutxienez, hiru pertsona eta kontaktu nondik etorri diren.

Gure konpromisoa

Tarraian aipatutako GKE-etatik, zein aritzen da migratzaileekin eta errefuxiatuekin lanean?

- A. UNRWA
- B. CEAR
- C. GREENPACE
- D. ACNUR
- E. JRS

Azalpena: guztiak Greenpeace izan ezik, erakunde horrek ingurumena eta klima defendatzeko lan egiten baitu.
UNRWA: errefuxiatutako palestinarrekin lan egiten du.
CEAR: Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea.
ACNUR: Nazio Batuen Errefuxiatu Agentzia.
JRS: Errefuxiatuentzako Zerbitzu Jesuita.

Gure konpromisoa

GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



GALDERAK

Mugarik gabeko
mundu bat



Zer dira GJHak?

- A. Gogobetetze eta Joritasun Helburuak.
- B. **Garapen Jasangarrirako Helburuak.**
- C. Garapen Jasangarrirako Herriak.

Azalpena: GJHak dira nazioarteko erakundeek guztiontzat mundu bidezkoagoa, iraunkorragoa eta baketsua lortzeko adierazi duten plangintza. Guztira 17 helburu dira, pobrezia desagerrarazi, planeta babestu eta munduko pertsona guztiek bakeaz eta oparotasunaz gozatu ahal izateko, inolako bereizketarik gabe.

GJH

Garapen jasangarriko zenbat helburu daude?

- A. 5
- B. 12
- C. 17

Azalpena: Agenda 2030an Garapen Jasangarrirako 17 helburu zehazten dira. Hauek guztiontzako etorkizun hobeko bat bermatzeko helmugak dira.

GJH

Nork sinatu ditu Garapen Jasangarrirako Helburuak?

- A. Hezkuntza Ministerioak.
- B. **Nazio Batuek.**
- C. Europako Parlamentuak.

Azalpena: Nazio Batuetako 193 herrialdetako ordezkariak Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko konpromisoa hartu zuten 2015ean.

GJH

Zer lortu nahi dute Garapen Jasangarrirako Helburuek?

- A. Herrialde guztiek hazkunde ekonomiko bera izatea.
- B. **Herrialde guztien bakea eta garapena, pobrezia-amaiera, pertsona guztien eskubideak eta planetaren babesa.**
- C. Herrialde txirotenek herrialde garatueneren kapital bera lortu ahal izatea.

Azalpena: helburuak lortuz, pobrezia desagertarazi, planeta babestu eta mundu osoko pertsonen bizitzak eta aukerak hobetu nahi dira.

GJH

Zer urtetarako lortu nahi dira Garapen Jasangarrirako Helburuak?

- A. 2020
- B. **2030**
- C. 2025

Azalpena: GJHak biltzen dituen proposamenari 2030 Agenda deritzo; izan ere, helburuak 15 urtean lortzea da asmoa, 2015etik 2030era bitartean.

GJH

GJHen funtsezko gakoetako bat da:

- A. **"inor ez atzean uztea".**
- B. ahal duenak bete dezala.
- C. garapen ekonomikoa hobetu nahi duela.

Azalpena: GJHen funtsezko leloetako bat da inor ez atzean uztea; hau da, pertsona guztiek izan dezatela bizi-baldintza duinak lortzeko aukera, planeta osasungarri batean, eta giza eskubide guztiak bete daitezela.

GJH

Zer ezaugarriak definitzen dituzte hobekien GJHak?

- A. **Unibertsalak eta eraldatzaileak dira.**
- B. Herrialde bakoitzean desberdinak dira.
- C. Ezinbestean bete beharrekoak dira.

Azalpena: unibertsalak dira. GJHak erreferentzia-esparru unibertsala dira egiaz, eta herrialde guztiei ezarriko zaizkie. **Eraldatzaileak dira:** 2030 Agendak ikuspegi eraldatzailea dakar, pertsonak eta planeta ardatz dituen garapen jasangarri bat lortzeko, giza eskubideetan eta pertsonen duintasunean oinarrituta.

GJH

Hauetako zein da 2030 Agendan batutako GJH bat?

- A. **Kalitateko hezkuntza.**
- B. Eskubide eta duintasun berdintasuna.
- C. Erljio, kontzientzia eta pentsamendu askatasuna.

Explicación: b) eta c) erantzunak giza eskubideak dira. a) erantzunak laugarren GJHa adierazten du, kalitateko hezkuntza bidezkoa eta inklusiboa bermatu nahi duena, guztientzako eta bizitza osoan zehar ikasketa aukerak sustatuz.

ODS